

HITZAURREA

JUAN SAN MARTIN

(Gipuzkoako Arte Eder Aholkari,
Euskalerriko Adiskideen Elkartekoa
eta Euskaltzain osoa)

Eibarko *damaskinatu* izena desgaraiko eta desegoki gerta liteke, zentzu modernoan, Damaskon ez baizik eta Eibarren jaioa den produktu batentzat. Argi gera bedi, Eibarko produktuek Damaskorekin zerikusi txikiagoa dutela Saxonia eta Staffordshire-eko portzelanek Txinarrekin baino. Sistimaren asmatzaileak edo transformatzaileak zuzen ibili ziren urte luzeetan Eibarko hiri armaginari distira eman zion artesau-lanbide hau ikertzean eta bideratzean, baina *damaskinatu* izenari dagokionean huts egin zuten. Izan ere, bigarren mailako zerbait zen izena haientzat. Eta inolako zalantzarik izan ez dadin, argitasuna behar du honek. Eibarko armagintza tradizioa, ez da Ilustrazio garaitik datorrena pizkunde hasiera beretik baizik. Gipuzkoako Deba ibaiaren arroan suzko arma garraiarriak egiten zirelakoari buruzko lekukotasun historikoak XV mendearen azken aldetik datoz. Noizdanikoa da, ordea, urre eta zilarrezko inkrustaziobidezko arma-apainketa? Ez dago xehetasun ziurrik. Ataujia deritzan lehen prozedura, alde zurretik burdinean edo altzairuan irekitako zirriztu edo hulguneak urre edo zilarrezko hariz betetzea, ezaguna da Eibarren XVIII. mendean landuriko zenbait armatan, Europa eta Ameriketako zenbait museotan daudenetatik ikus daitekeenez, baita Inazio Bustinduk fabrikaturiko Eibarko Armagintza Eskolan bertan dagoen pistolatik ere. Bestalde, XVIII. mendearen azkenetan, Jovellanos estatu-gizonak bere *Egunkarian* eman zigun Eibarko arma lantegira egin zuen bisitaren berri: “kanoigileek ezin hobeki inkrustatzen dituzte zilarrezko mirak eta puntuak, baita urrezko apaingailuak ere burdinean, eta egokitasun handienarekin paboneztatzen dituzte”. Lekukotasun hauetan datza gaurregun damaskinatu deritzagunari buruzko lehen informazioa.

Baina alde nabarmena dago inbutiziozko prozedura haren eta marra elkargurutzatuz eginiko pikaketa finezko azalera baten gainean burututako errekamatuaren artean. Azken honek askatasun handiagoa ematen du hariak eta urrezko xaflak erabiltzeko eta marrazkian konplexutasun eta zehaztasun askozaz handiagoa lortzeko aukera eskaitzen du, halaber, erliebeak eta itzaldurak tarteratu zaion metal preziatuan lantzen direlarik. Baina nik ez dut ezer idatziko lan hauek burutzeko beharrezkoak diren teknika zailei buruz, gai horietan adituak diren beste batzuk askozaz hobeki azal ditzaketelarik, zeren horixe baita liburu honen helburua.

Honen artegintza bereziak bere baitan duen muin guztia gogoraraztea da liburu honetako testuaren jomuga: Eibarrek garatu zuen modu hura, hainbat eibartar belaunaldiren dohaiak jokoan jarriz, mundu osoaren miresmena lortuz eta seaska izan zuten herria ohoratuz. Eta honetan ez dago aho-berokeriarik, zeren aski esanguratsua baita, José Martí poeta, Estatu Batuetan izan zen garaiko aipamena: "Ez dago John Whittier, kuakeroa, Eibarko langileek bezala, burdina bigunduan eskuz zilar eta urrezko hariak birlantze eta perloriz, ñabartu eta errekamatzten dakiena".

Eusebio eta Plazido Zuloaga aita-semeak (Ignazio Zuloaga, eibartar pintatzaile ospetsuaren aitona bata eta aita bestea) izan ziren usadiozko lankeran berrikuntzak sarrerazi zituzten bi nagusienak, eta prozedurak aldatzeaz gainera, aplikazio berriak eman zizkioten. Urregin trebeak izanik, euskal armagintzaren usadiozko esperientzietatik abiatu ziren, ikerketa luze eta neketsuak egin zituzten aintzinako ataujiari buruz, Dresdeko museoan batipat, Damaskotiko armadura zaharrak aztertuz, eta hortik eman zioten *damaskinatu* izen hori.

Eusebiok bere osabaren ondoan egin zituen armagin-ikasketak Plaentxiko lantegian, 1822tik 1827ra bitartean eta gero Frantziako St. Etiennen jarraitu zituen Lepage maisuarekin. Armagin trebe eta zizelkari aparta bezala nabarmendu zen. XIX mendearen erdi alderako, puntzeta zorroztuaz baliatu zen urrea eta zilarra errekamatu zireneko hondoa eta azalera prestatzeko. Lan-molde berri hau sortzea funtsezkoa izan zen metal preziatuarekiko marrazkigintza hobetzeko burdina eta altzairuzko xaflen gainean, pikaketa erronboidal, ia mikroskopikozko azaleraren gainean urrezko haria maneiatzea erraztuz. Beronen semea zen Plazidok gazte-gaztetandik erakutsi zuen trebetasuna errekamatzte eta zizelketa lanetan, eta beste hobekuntza batzu lortu zituen sistema berrian; adibidez, labanazko estriagintza puntzetazkoaren orde. Hobekuntza hau oinarrizkoa izan zen metaleko marrazkigintza eta inbutizioan goragoko mailak lortzeko, eta piskanaka lorkizun garrantzikoagoetara jo zuen, beste zenbait arte aplikatutarantz hurbilduz, armagintzaz kanpo, "Eibarko gauzak" izena hartuko zutenak sortuz. Aita-semeok eskola egin zuten eta berauen eta ikasleen eskuetatik kutxatila, txarro, anfora, erloju, bitxikaxa, bandeja, imajinatxo, paparreko, eskuturreko, papera zapaltzeko dortoka txirrindunak, orrazia etab. sortu ziren, Benvenuto Cellini bera ere ohoratuko luketen sorkari miresgarriak. Baita ezpata, sastakai eta ganibetak ere "Toledo" marka lepoan edo heldulekuan zutela, aintzinako altzairu toledoarrek zuten ospeak eraginez, seguraski. Merkatal-arinkeria hau garesti ordaindu behar izan zuen Eibarrek konkurrentzia handituz zihoan neurrian eta *damaskinatu* berriaren gurasotza eztabaidan jartzen zen heinean, zeren Plazido eta beronen ikasleei esker Toledoraino hedatu baitzen eraberrikuntza teknikoa, ohizko ataujian ari ziren artesauak trebatuz.

Gogoan edukitzekoa da, Zuloaga aita-semeak, oso adituak zirela arte gaietan eta garai hartan sapan zeuden gustuetara, ingeles biktoriarrera eta "bigarren inperio" frantsesera egokitu zituzten bere apaindura-motiboak. Zehatz-mehatz zaintzen zuten konposaketa. Korronte erromantikoen eraginak jarraitu zituzten hasieran, eta modernistenak gero; joera neoerrenazentistak eta neoarabeskoak ere gogoz onartuz, zeren ongi baitzetozkien sorkariei, motibo gruteskoz eta elkargibizatze aliketatzuz konposaketa joriak burutzen zituztelarik.

Apaindura-gaiak behin eta berriz errepikatzearen ondorioz etorri zen beherakada. Plazido hil ondoren, ikasleen artean arte-kultura trinko baten gabezia nabarmendu zen eta honenbestez, arte orok beharrezkoa duen eraberrikuntzarako indarra emango zion izpiritu sortzaileak eskatzen duen derriorezko orientabidea falta zen. Toledon luzaroago iraun badu, inguruko giroari zor zaio, turismorako toki aproposa baitago, monumentu eta arte-museoen babesean, Talaverako zeramikatik hurbil eta hainbesteko ospea lortu zuten altzairuzko ezpaten tradizioak duen oroitzapen ezabagaitzaren eraginpean.

Eibarren beti izan dira eta orain ere badira langile ezin hobeak. Baina gaurregun, metal preziatuaren eta lan-eskuaren garestitze izugarria gorabehera, arte aplikatuak sakonki ezagutzetik bakarrik etor daitekeen eragin transformatzailea falta dela aitortu beharra dago. Eta hasierako ekintzaile haiei ez zitzairen honelakorik falta. Dena den, arrakasta handi hura artesautalde batek sortze lana ulertu, bereganatu eta buru-belarri burutu zuelako gertatu zen. Sormen hura lantzeko eta garatzeko Zuloagatarrek baldintza egokiak aurkitu zituzten inguruko inguroan. Herri baten jokabide eredu garri honen aurrez-aurre ez dago inola ere itxaropena galtzerik.

Argi dago transformakuntzek beste sorkari industrialetarantz jo dutela. Historia atergabe bere bideari darraikio. Baina batz besteko balorapen bat eginez gero, baliteke gaurregun maila apalago batetan aurkitzea. Gure prestakuntza teknikoa eta humanistikoa ez direla parez-pare hazi esan nahi ote du honek? Gogoeta gaia da. Balio-aldaketa batek automatikoki baldintzatzen ditu bizi-moldeak eta hortik dator eskabidea; baina horrela izanik ere ez du aurkako gertatu beharrik, egoera aski aurretiaz ikusten eta plan berriak prestatzen jakinez gero.

Kontua da Eibarrek ez duela jakin izan, salbuespen ohoragarri batzuek kenduz gero, bere iragan historikoak eskatzen zion langileen kualifikaziozko prestakuntza-mailari eusten. Austriatarren garaietatik hasirik, gogora dezagun nola erret armeriak berak Plaentzia eta Eibarko armagin-gremioekin harreman estuak mantendu beharra zuen: Zelaiatarrak, Ezenarrotarrak (D'Zenarro), Usatorretarrak etab. erret armaginak izan ziren Blas Zuloaga (Eusebio-ren aita) gortera iritsi baino lehenago. Hemen egunera eusten zitzairen aurrerapen teknikoei eta Penintsulako beste lurraldeetan ez bezalako kanoiak egiten ziren, eta hain iraunkor eta arinak zirelako, erret armada hemendik hornitzen zen nagusienik, eta sail honetan eta "Eibarko gauzak" deituetan beste guztien aurretik aurkitzen ziren hemengoak.

Jarrera hau baliteke berreskuragaitza ez izatea. Historiako gorabeherarik kontrakoenetan eibartarrak beti asmatu du krisialdietatik garaile irteten, eta berriro, fenix hegaztiaren antzera, gorantz egingo du gizon lagunkoi eta jarduna den neurrian bere kemen bulartsuari eusten badio:

Bukatzeke zera esan behar dut, liburu honek historia ongi dokumentatua eskaintzen duela, nola testuen aldetik hala irudienetik ere. Beharrezkoa da historia hau herri bat zertarako gauza izan den ikusteko. Orrialde hauek batez ere herri baten etikaren adierazgarri dira. Eibarren distira eta bizitzaren atal handia suposatzen duen giza-jokaerarena. Iraganak irakatsia, jarraibide da etorkizunerako.